

Ezpalak

JON TORNER

Guregipuzkoa.net: Gipuzkoako ondare grafikoa lizentzia librean



GIPUZKOAKO Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailaren proiektua da Guregipuzkoa.net web-gunea. Gipuzkoako iraganeko eta oraingo argazkiak aurki daitezke bertan.

Irudi asko Kultura eta Euskara sailaren bildumetakoak dira, baina edonork bere argazkiak bertan jartzeko aukera du, harpidetu ondoren. Irudi guztiak Creative Commons Aitortu-Partekatu baimen librearekin (<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>) banatzen dira.

Getxophoto erakusketak Asia izango du ardatz

“ASIAKO FIKZIOAK” lelopean egingo da Getxophoto (<http://getxophoto.com>) erakusketaren 3. edizioa, irailaren 10etik urriaren 11ra bitartean. Txina, Hego Korea, Taiwan eta Japoniako argazkilariak bilduko ditu besteak beste. Getxoko kaleetan hogeit hamar erakusketa paratuko dituzte eta horien harira beste hainbat ekitaldi izango dira: proiektzioak, bertso saioak, hitzaldiak...

Euskal Herriko Gazte Orkestrak denboraldiko emanaldi nagusia Eskozian eskainiko du, abuztuaren 4an egingo den Aberdeen International Youth Festival jaialdian. Uztailaren 26tik 29ra bitartean, bestalde, Gasteizen, Bilbon, Sopelan eta Donostian ariko da. Juan Jose Oconen zuzendaritzapean bi obra prestatu dituzte: Aram Khachatourian-en *pianorako kontzertua* eta *Xerezade* (*Mila gau eta bat gehiago* ipuin sortan inspiratua).

Quentin Tarantino

zinemagilearen *Inglorious Basterds* (Sasikume madarikatuak) filmak zabalduko du Donostiako Zinemaldiko *Bitxiak* saila. *Un prophète* (Jacques Audiard), *No One Knows about Persian Cats* (Bahman Gobadi), *Taking Woodstock* (Ang Lee), *Whatever Works* (Woody Allen) eta *Precious* (Lee Daniels) filmak ere proiektatuko dituzte, besteak beste.



Josu Waliñoren *Hortza galdu du Jonek* (Ander Hormazuriren marrazkiekin), Javier Cilleroren *Aurrera, kakarraldo!* (Dei Gaztelumendi) eta Francisco Navalesek sortu eta Alex Aldekoa-Otalorak itzulitako *Suso Espada, Istanbul eta urrezko zalditxoak* liburuak plazaratu ditu Aizkorri argitaletxeak.

- **Sabin Bikandi Aiko dantza taldeko kideak Bizkaie! agerkari elektronikoa:** «Folklore zer dan zehazteko tesi doktora beharko geunke. Gurean badago herri kultura, jantzan, musikan zein hizkuntzan bertakotasuna aldarrikatzen dauen jokera bat eta gaiaren harian, lagun bategaz izandako berbaldiaren harian, harek esaten eustan lehen jantzan egiteko zein euskeraz berba egiteko modu desbardinak egozala eta hori holan zan desbardinak ginalako. Gaur, barriz, batzuetan desbardin jantzan egin eta berba egiten dogu apropos desbardinak izateko eta horrek panorama apur bat konplikatu egiten dau».

- **Ane Miren (www.kontorsioan.com) bihurrikariak Aizu! aldizkarian:** «Hangoa (Kataluniakoa) hasieratik ezagutu nuen, eta agian hamar edo hamabost urteko abantaila daukate gure aldean. Han erakundeek badute sentsibilitate handixeagoa. Eta Frantziara bazoaz,

harrirtuta geratuko zara. Han ehun mila argi-urtetara daude. Artista moduan izan ditzakezu ez dakit zenbat emanaldi urtero, eta lesio bat izanez gero, langabezia daukazu. Zuzenean behar batzuk estaliak dituzu. Erretiratzen zara, eta badauzkazu lekuak eskolak emateko; hemen kale gorrian geratzen zara».

- **Juanra Madariaga idazleak Berrian, kaleratu berri duen Eroriaren logika (Susa) poema liburuaren harira:** «Ez dut uste nire poesiak filosofikotik ezer duenik, baina gerta daiteke irakurleak liburuaren atzean denboraren gaineko filosofia bat antzematea. Azken batean, irakurleak liburuak teorizatzen ditu, eta baten batek teorizazio filosofikoa egin dezake honetaz ere. Baina ni ez naiz horretan saiatu. Poesia errealista da nirea, edo hiperrealista. Errealista, zentzurik traketsenean. Hau da, egunero ikusten dudana aritu naiz, egunero sentitzen dugunaz».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarak

MIKEL ASURMENDI

Aurrez aurre... aitzina beti

Aurrez aurre...

Claude Iruretagoiena

Maritzuli Konpainia – Meatzaldeko Harrigorria – Aiko taldea

AURREZ AURRE... dantza-ikusgarria aurtengo martxoan estreinatu zen Donibane Lohizunen. Jende andana bildu zuen, dantzaren adituak (Juan Antonio Urbeltz, Oier Araolaza... besteak beste), ari-tuak eta zaleak. Ekitaldia arrakastatsua izan zen. Durango, Gallarta eta Luhuson aritu dira ondoren ikuskizunaren arizaleak. Gure ekialdeko eta mendebaldeko dantzari, musikari eta teknikariek muntatua duzu *Aurrez aurre...*; Biarritzeko Maritzuli Konpainiak, Gallartako Meatzaldeko Harrigorriak eta Aiko musika taldeak sortutako ikuskizuna da. Emanaldi gutxi eskaini izan dira orain arte. Arrazoietakoa bat, ez bakarria, Biarritz eta Gallartako bi konpainia *aurrez aurre* jarri ahal izateak eskatzen duen ahalegin handia.

Ez da ez tipia Claude Iruretagoiena koreografo lapurtarra –Jon Iruretagoiena semeak lagundurik– gauzatzen ari den lana. “Hala jinko!” erranen luke Pastoreleko edozein arizalek. *Ihante*, *Branletik jantziak*, *Paperezko iantziak* eta *Ando drom* atalek osatzen dute oren eta erdiko ekitaldia. *Ihantea* Santa Luziaren eskutik heldu da, ilunpean. Maskaradako dantzek berotzen dute negu parteko aldia. *Paperezko iantziak* delakoek XVII. mendera eramaten gaituzte segidan, Italiako Errenazimendu garaira. *Ando drom* partean artikulatzen eta gauzatzen da ikuskizuna: Maritzuli eta Meatzaldeko Harrigorria konpainiak *aurrez aurre* jarritakoan.



Horiek guztiak Aiko taldearen doinuaren eritmoan. Aipagarria da ikuskizunaren argiztapena, dantzarien jantzi nasai eta ikusgarrien distirantea. Hori lana jantzietan emana! Ez dira Iruretagoienatarrak ekile eta dantzari bakarrak (Gallartako Jesus Mediavillak ere aipamena merezi du; eta barka nazaten aipatu gabeko ekile guztiek), bere alboan ari direnek berebiziko meritua dute, zinez. Kontuan hartu, ikusgarri honen arizaleak profesionalen mailan diharduten amateurrak direla. Ontsa dakit amateurrak izatearena, hauetako hainbat hurbilekoak baitituz.

Hurrengo emanaldia Hendaian izanen duzu, urria aldean. Orain arteko agerraldiak ez dira zuzeneko musikaz jokatuak izan, maleruski. Maleruski eta prefosta. Horretarako profesionalen baliabideak behar baitira. Alta, zer ez nuke nik ordainduko *Aurrez aurre...* Aiko taldeko Aitor Furundarena musikariaren soinuz eta ahotsez zuzenean entzuteagatik. *Aurrez aurre...* izeneko DVDan ari diren musikariek bistan da. Agian, –agian, zuberotarren gisara– egunen batean gauzatuko dira aldiari aldiko nahikari xumeak!

Dive Tarpoon
urpekaritza

Kirol portua, A7 lokala
48992 GETXO (Bizkaia)
Tel / Faxe: 94 4912577
divetarpoon@euskalnet.net
www.divetarpoon.com